


Sutondoan "Nire tesoroa", Roman Garmendiaren 2. liburua
Kirolak IX. Txirrindulari Lasterketa Saria domeka honetan

Pipilean

SORALUZKO
HAMABOSTEKARIA
128. alea, 2006ko
otsailaren 24an



“Bai eskolak euskalduntzeari!”
kanpaina martxan da



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE



**MAKINA BEREZIAK
LERRA AUTOMATIKOAK
ESTANKOTASUNAREN KONTROLA**



SORALUZE MAKINA BEREZIAK S.L.L.
Mendiola industrialdea, 14-5 · Tel. 943 75 18 91 · SORALUZE



JOSE LASKURAIN

Telefono mugikorren arriskuak

Gaur egun badirudi ahaztu dogula baina oindala urte batzuk, telefono mugikorrak jentian artian zabaldu ziranian, eta heron erabilera gutxi batzuz bitxikeri izatetik ixa danon eguneroko kontu izatera pasatu zanian, kezka haundi bat zabaldu zan gizartian. Ez ete dira osasunantzat kaltegarriak? Komunikabidiek arreta haundixa jarri zotsen eta denbora luzez puri-purian egon zan gaixa izan zan.

Kontua da arduratuta gendela danok mugikorrek igortzen daben erradiazioak guran kalterik eragingo ete daben, burmuineko minbizixa, antzutasuna edo beste gaitzen bat sortuko ete daben. Ikerketa zientifiko asko egin dira mugikorren erabilera gaitz horrekin daukan lotura frogatu nahixan, baina gaurdaino ezta holakorik baieztatu. Maiztasun haundiko irrati uhinak igortzen ditte mugikorrak, eta belarrixan jarritta barriketan garenian uhin honek gure buru barrura sartzen dira eta zertxobait berotzen ei dabe, baina beroketa horrek ez ei dauka eragin txarrik, eta ez ei dau bestelako kalterik egitten. Honetaz dakixenak hala diñue sikera.

Baina bestalde, ikerketa estatistikuak argi eta garbi erakusten dabe gidatzera kuan mugikorretik berba egittiak istripu bat edukitzeko arriskua haunditzen dabela. Datu hotzak erakusten dabe ohitura hori daken pertsonak 5 aldiz istripu gehixao izaten dittuztela. Eta arriskutsuena diarra egin edo jasotzen dan momentua ei da.

Beraz, mugikorrak badira bai gure osasunantzat kaltegarriak, baina ez erradiazioagaittik, distrakzioagaittik baizik.

Azkenengo egunetan komunikabidietan entzun dogu ertzaintzak eta udaltzainak kanpaina berezi bat egingo dabela gidatzen goiazela telefono mugikorretik berba egittian kontra, berba egitten dabenen kontra alegia. Zorrotz begiratuko dabela eta isun edarrak ipiniko dittuztela. Kanpaina honek pare bat aste iraungo ditte, baina gure, gurekin doiazenen eta gurekin gurutzatzen diranen onerako, gero be kontu izan daigun eta bolantian garenian mugikorra erabiltzia ekiditen saia gaittezen.

Telegrapak

Kaixo irakurle. **Stop.** Euskararen irakaskuntzaren gaixa dakargu barri nagusitzat. **Stop.** aspaldiko partez. **Stop.** eskola eta euskara. **Stop.** zorionez, Ikastolaren sorrerak eta inguruko mugimenduak zabaldu zotsazen bidiak euskerari irakaskuntzan. **Stop.** zenbat izardi eta buruhauste. **Stop.** zenbat bilera eta ahalegin. **Stop.** eta zenbat fruitu. **Stop.** eta pentsatzen hasita... zenbat umek ikasi dabe euskeraz ordutik?. **Stop.** ba ikastolatik pasatu ziran dan danak!. **Stop.** danak dira ulertzeko eta zela edo hala berba egitteko gauza. **Stop.** eta hori gauza haundixa da. **Stop.** gerora Ikastola publiko egin eta Herri Eskolarekin bat egin zebanian azken honen urtetako zama hartu bihar izan zeban bere gain. **Stop.** hala ta be aurrera, euskararen bidian beti. **Stop.** irakasle eta guraso askoren ahaleginagatik. **Stop.** gabeziak gabezia, gure herriko egoeria ona da. **Stop.** danak ikasten dabe euskeraz D ereduan. **Stop.** baina hori ez da darian gertatzen. **Stop.** Euskal Herriko herririk gehixenetako neska mutikuak ez dabe euskeraz ikasten. **Stop.** hirutik bik ez dabe ondo ulertzen eta ezin dira gauza ondo erabiltzeko. **Stop.** eta hori gertatzen da ez detselako erakusten. **Stop.** erderaz bakarrik erakusten detselako. **Stop.** eta horren aurrian ixilik?. **Stop.** "Euskal Herrian euskaraz nahi dugu hitz eta jolas, lan eta bizi euskaraz eta hortara goaz"... **Stop.** hori zan Gure Ametsa!. **Stop.** gogoratzen?. **Stop.** euskarari bai!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea
Frontoi Kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze
Telefonia 943 75 13 04
komunitad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua:

Egoitz Unamuno
Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria eta Egoitz Unamuno

Publizitatea:

Ane Larreategi

Logotipoa: Jon Gabilondo

Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.920 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Diseinua eta maketazioa: BOROBILE Zerbitzu Grafikoak

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkartea ez du bere gain hartzen aldizkario esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.




SORLUZEKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



ERREPORTAIA

Euskalgintzako zenbait eragilek "Eskolak euskaldundu behar du" kanpaina jarri dute abian Euskal Herri osoan, ikasleen euskalduntzea bermatzeko eskatuz. Herri mailan ekintza desberdinak antolatu eta sinadurak bilduko dira

Zorion agurrak



Bea Deza

Otsailaren 23an, 18 urte
Zorionak eta ondo pasau
Leire eta Andonin partez!
Muxuak!



Ainhoa Gonzalez

Martxoak 5ian, 2 urte
Zorionak sorgin hori!
Muxutuak etxekuen partez



Josune Saban

Otsailaren 24an, 7 urte
Zorionak polit hori, etxe-
kuen partez!



Maialen Alberdi

Otsailaren 21ian, 10 urte
Zorionak eta muxu haundi
bat etxekuen partez!



Ane eta Marga

Otsailaren 27xan,
Zorionak eta ondo pasau bikote!!



Laura Larreategi

Martxoaren 8xan, 43 urte

Jon Urdangarin

Martxoaren 9xan, 5 urte

Zorionak eta muxu haundi bat etxekuen partez!

Iragarkiak

- **Etxea salgai** Ezozki bidean. 64 m².
Tlf: 943 75 16 83 / 666 75 24 76.
(Maribel).
- **Argazki zaharrak berri**zen dira eta
ezkontzetako bideoak editatu.
Tlf: 617 24 26 60.

Jaiotakoak

INHAR ARIZNABARRETA MURO

Hildakoak

RAFAELA HERNANDEZ SERNA



Informazio gehiago
900 110 111 doako telefonoan
www.gipuzkoa.net/gazteria
Buletinen harpidetza !!!

Ikastaroak

Argazkigintza digitaleko tailerra

Gipuzkoako Foru Aldundia.
Irabazi asmorik gabeko erakundeetako
gazteak, boluntarioak, arduradunak eta
zuzendariak. Iraupena: 4 ordu. 2006ko
martxoaren 8an eta 9an.

Ordutegia: 19:30etatik 21:30etara.

Tokia: CRAJ-Gaztegunea. Gaztelera.

Epea: 2006-02-20tik 2006-03-03ra.

Telefonoa: 900 11 01 11 / 943 47 26 17.

"Gatazkei aurre egiteko modua"

Hezkide Eskola. 21 urte izan behar dira.
21 ordukoa.

Egunak: martxoaren 8, 9, 14, 15, 16, 21
eta 22a.

Ordutegia: 18:00etatik 21:00etara.

Hizkuntzak: Gaztelera.

Epea: 2006-03-03.

Telefonoa: 943 31 14 74.

Bekak

3 beka arte sorkuntzarako

Hondarribiko Udalaren 3 beka arte plas-
tikoena, argazkigintzaren eta zinemaren
arlotako arte sorkuntzarako.

Epea: 2006-02-23.

Telefonoa: 943 11 12 13.

Lana

9 Funtzionario

Galdakaoko Udala. 5 Udaltzain, 3
Gizarte-langile, Drogazaletasun eta
Emakume Saileko tenikari 1.
Tel.: 94 456 05 00.

3 Psikologia Teknikari

Donostiako Udala. Doktorea eta lizen-
tziatua. Euskarako 3. hizkuntza-eskakizu-
na. Oposizio-lehiaketa.

Epea: 2006-02-27.

Telefonoa: 943 48 10 00.

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



PASCUAL CHURRUGA, s.a.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Zer irizten dotsazu?

Kontseiluak emandako datuen arabera, Euskal Herriko ikasleen %30a bakarrik euskalduntzen du eskolak. Hau da, hirutik bi ikaslek ez dute euskararen behar bezelako ezagutzarik lortzen. Eusalgintzako eta hezkuntzako hainbat eragilek "Bai eskolak euskalduntzeari!" lemapean sinadura bilketa hasi dute.

Ze irizten dotsazu eskolak euskaldundu egin bihar dabela eskatziari?



Mikel Alvarez de Eulate

17 urte, ikaslia

Oso ondo pentsatzen jata, egoeria oso tristia da ta. Hizkuntzak aurrera egin deixin umetatik hasi bihar da. Oin eskolan dabizenak dira ta euskerian etorkizuna.



Begoña Elizburu

48 urte, etxekoandria

Nik uste dot eskolan erakutsi arren norberak kalia erabil-tzen ez badau sekula ez dabela euskeraz ganoraz ikasiko. Adibidez, nik dana egitten neban eskolan erderaz baina euskeraz ondo dakit. Gazterixia animau biharko litzake.



Iker Benito

13 urte, ikaslia

Primeran irizten jata, bestela inork gutxi ikasi eta azkenian desagertu egingo dalako. Aldaketarik egon ezian ez goiaz bide onetik. Egixa esanda, ez nabe bape harritzen datuok. Erdal girua gero eta gehixao igartzen da.



Miren Gabilondo

87 urte, etxekoandria

Edarki pentsatzen jata egoeria larrixa da ta. Gainera euskeria aurrera eruateko primerako tokixa da eskolia eta hortik ekin bihar jako. Datuak entzunda bildurtu egin naiz.



Maite Domínguez

13 urte, ikaslia

Eskaeria biharrezkua dala uste dot. Nere iritziz ez da obligatorixua izan bihar euskeria jakitxia, baina penagarrixa da hizkuntza bat hola galtzia. Hala ta be, ez neban pentsatzen datuak horren eskaxak zirarik.



Moises Arizaga

64 urte, autonomua

Eskoliana baino, egunian zihar euskeraz ez egittia dala uste dot fallo haundixena, praktika eza. Oin euskeraz gehixao erakusten da lenao baino ta gainera ume eta gaztiak hizkuntzak ikasteko erreztasun gehixao dauke.



**Karta enkarguz,
jaunartzeak
eta bataioak**

EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

- Bizkarreko mina
- Esginzeak
- Tendinitisak
- Masajeak
- Erreuma
- Etxeetara fisioterapia
- Istripu ondorengo errehabilitazioa
- Kirol osteko errehabilitazioa


ORMAZABAL
FISIOTERAPIA ZENTROA

Unai Ormazabal Iraola
Kolegiatu Zenbakia 947

Altos Hornos Industrialdea • Telleria, 6 bis - Of.11 • BERGARA
Tel. 943 76 53 35 / 626 900 608 • ormazabalfisioterapia@yahoo.es

Lehendakari berria behar da Jubilatutik Etxean

Itzaropena jubilatuen etxetik jakinarazi digutenez, azken 10 urteetan presidente izan den Jaime Aristik kargua lagako du datozen asteetan. Momentuz ez da kandidato berririk agertu, eta martxoaren 31n ospatuko den Urteko Batzorde orokorrerako inor aurkezten ez bada, presidentik gabe geratuko da Itzaropena.

Jubilau-etxeko berriekin jarraituz, Juntak datozen hilabeteetarako

bi irteera berri antolatu dituela aipatu beharra dago. Lehenengo martxoaren 22an izango da, egun bakarreko irteera, Kantabriako Queveda herrira. Bigarrena, berriz, 15 egunerako bidaiaria izango da, Benidormera. Autobusez egingo da bidaiaria eta 370 edo 390 euroko prezioa izango du, aukeratzen den hotelaren araberrakoa. Interesatuak jubilatutik Etxean eman beharko dute izena.

Arrizabaletako eta Kiroldegi gainekeo lanak hasi dira



2006. urteko lehenengo lanak joan zen astean hasi ziren. Arrizabaletako parkean Izartu programaren baitako bigarren faseari ekin zaio. Lehenengo fasean ziburugunea egin zen. Bigarren honetan 2 egitasmo daude. Bata, argazkian ageri den grabilla lurra aldatu eta egokitzea izango da, eta bestea, gune hau ziburu gunearekin bat egitea, atzekaldetik joango den bidexka baten bitartez. Lan hauen aurrekontua 123.243 eurokoa izango da eta Greyhound S.L.k egingo dute. Enpresako arduradunek agindu dute lanek 12 asteko iraupena izango dutela. Kiroldegi gainekeo

lanei dagokionez, kendu dute jada futbito zelaiko kaiola. Hori izan da lehenengo lana bertan egin nahi den proiektua burutu ahal izateko. Momentuz ez da ezagutzen zer egin nahi den bertan Foru Aldundiko teknikariak aurreproiektua erredaktatzen dihardue eta. Gonzalez de Txabarri diputatu nagusiak bisitatu gintuenean azaldu zuen kiroldegi gaina estali eta bertan erabilera askotariko barren plaza bat egiteko asmoa zegoela. Proiektuak 0,5 milioi euroko aurrekontua dauka. Datorren hilean Santa Ana eta Kalebarreneko zaharberitze lanak hasiko dira.

Informazioz ez aparkalekuen inguruan

Erregetxeko lurrazpiko aparkalekuen inguruan ez dago informazioz. Urte hasieran, "Construcciones Moyua" enpresako arduradunek 300 euroko diru seinale bat eskatu zieten lurrazpiko aparkalekuak erosteko interesaturik zeudenei (166 herritarrek eman zuten izena), eta diru hori enpresaren kontu baten sartzeko azken eguna urtarrilaren 30 jarri zuten. Hilabete pasa ostean, enpresako arduradunek ez dute informazioz eman. Ezin jakin beraz zenbat herritar dagoen erabakita garage plaza erosteko. Udaleko ordezkariak gaiaren inguruan galdetuta, erantzun digute enpresako arduradunak hasieran izena eman zuten 166 herritarrez osatutako zerrendarekin jarraitzen dutela lanean eta galdeketak egiten dihardutela. Enpresako teknikariek, bestalde, proiektua erredaktatzen jarraitzen dute.

Udal aurrekontuak ostegunean onartuko dira

2006ko Udal aurrekontuak datozen osteguneko (martxoak 2) Udal Batzarrean bozkatuko dira. Oposizioak egun batzuk izan ditu aurrekontuak aztertu eta aldaketak proposatu ahal izateko. Ogasun Batzordea ostegunean bildu zen. Aurtengoak 3.777.277,13 euroko aurrekontuak izango dira.

Juan Mari
Arraindegia

Eguneroko
arraina
eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Sorluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69



ARRANO
tabernia

Telefonoa 75 24 09

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU

etxera
EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK



Euskalgintzako hainbat eragilek "Eskolak euskaldundu behar du" kanpaina jarri dute abian Euskal Herri osoan. Kanpainaren helburua hizkuntz politika berria eskatzea da, orain arte indarrean egon diren hizkuntza politikek ez dutelako euskalduntzea bermatzen. Hori dela eta, kontzientziazio lana egin nahi da gizartean, eta sinadura bilketa erraldoi bat antolatuko da Euskal herri osoan. Plazentzian ere ekintza desberdina egingo dira eta 300 sinadura lortzea izango da erronka

Eskolak euskalduntzeari bai!

Kanpaina eta sinadura bilketa Soraluzen ere

EAE-ko Hezkuntza sailak datu batzuk plazaratu zituen 2005. urtean. Arduratzeko modukoak ziren. Euskal ikasleei Euskera maila neurtzeko eginiko froga baten arabera (datuak beheko taulan), etorkizunean Euskal Herriko 3 ikasletik bi ez dira euskaldunduko ondoriozta daitezke. Alegia, 3 ikasletik 2k ez litzatekeela euskararekin moldatuko. Datu hauek euskalgintzako jentearen erreakzioa ekarri zuen eta horren ondorio da orain martxan ja-

rrri den kanpaina.

Herriko eskolen euskalduntzea Plazentzian 1966. urtean sortu zen ikastola (Errepublikara garaian erregotxean ikastolen antzeko zerbait izan bazen ere). Ordura arte "Escuelas Nacionales" besterik ez zegoen herrian. Eskola hauetan dena erderaz ematen zen. Ikastolekin euskera sartu zen eskoletan. Jose Maria del Moral Herri eskola eta ikastola izan ziren urte luzeetan herriko bi eskolak. 1979an B eredu

sartu zen herri eskolan, eta ikasleak euskeraz eta erderaz hasi ziren klaseak hartzen. 1994an Ikastola publiko bihurtu zen eta 1996an ikastola eta Jose maria del Moral bateratu egin ziren. Hasieran gela batzuk B ereduarekin mantendu ziren baina 3. urterako D ereduak bakarrik geratu zen. Gaur egun ere D ereduak dago herri ikastetxean eta baita institutuan ere. Hala ere, kanpotik etorritako ikasle batzuk murgiltze prozesuan daude sartuta."

HIRU IKASLETIK BI EZ DA EUSKALDUNDUKO

IKASLEEN GUTXIENEO EUSKERA MAILA NEURTZEKO FROGAREN EMATZAK

- **89.666** euskal ikasleak klase guztiak gaztelera edo frantsesez jasotzen ditu, euskarazko irakasgairik gabe (ikasleriaren %20,7).
- **106.269** euskal ikasleak klase guztiak gaztelera edo frantsesez jasotzeaz gain, Euskara irakasgaia ematen dute, lau ordu astean (ikasleriaren %24,6).
- **72.419** euskal ikasleak hainbat klase erdaraz eta beste hainbat euskaraz jasotzen ditu, (ikasleriaren %16,7).
- **164.375** euskal ikasleak klase guztiak euskaraz jasotzen ditu, eta Gaztelera edo Frantsesa irakasgaia ematen du astean lau orduz (ikasleriaren %38).

	Ikasle kopurua	Froga gaindituko ez luketenak	Euskaldunduko ez den ikasle kopurua
G eredu	89.666	%100	89.666
A eredu	106.269	%100	106.269
B eredu	72.419	%67	48.520
D eredu	164.375	%32	52.600
OSOTARA	432.729	%68,2	297.055

Etzozi Larrañaga

PLAENTXI HERRI IKASTETXEKO ZUZENDARIA



Zela ikusten duzu Plaentxi Herri Ikastetxeke egoera euskalduntzeari dagokionez?

Une honetan, herriko ume guztien euskararen ezagutza ziurtatuta dago, badaude salbuespen batzuk, joan zen hilabetean matrikulatu ziren etorkinena adibidez. Ezin dugu berdina esan erabilerari buruz aritzen garenean, gai horretan azkeneko urteetan asko jaitsi da eta...

Zer da huts egiten duena?

Dudarik gabe, nik, Administrazioari, Hizkuntza Politikari dagokionez behintzat, "HOBETU BEHARRA" handi bat jarriko nioke (gaur egungo eskolako terminologian "hobetu beharra" gai bat gainditzen ez denean erabiltzen da).

Administrazioak herritarren eredu izan behar luke, baina zoritxarrez, gai honetan, eurak egindako azken azterketen emaitzak, gure ikasleenak baino askoz ere baxuagoak izan dira. Argi dago, benetako borondate politikoa falta dela. Egia da urrats batzuk eman direla, baina aspaldi honetan ezagutu diren datuek erakusten dute zerbaitetan huts egiten dela.

Gaur egun Sorraluzen bizi diren 20 urtetik beherako gazte guztiek (salbuespenak salbuespen) euskara ondo ezagutzen dute, baina ez dute beharrik erabiltzeko. Gure herrian, ederto bizi daiteke euskara jakin gabe, kaleko hizkuntza nagusia gaztelera delako. Gainera, kalean, erdaldunen seme-alabei automatikoki gaztelera hitz egiten diegu, eta horrela, ez diegu euskaraz hitz egiteko beharrik inoiz sortuko.

Zela hobetu daiteke hizkuntza politika?

Hasteko, ikasle-irakasle ratioak jaisteko beharra ikusten dut, edo behintzat eskola bakoitzaren egoera aztertu eta horren arabera behar diren baliabideak ematekoa. Ezin da berdin neurtu ikasleen gehiengoaren ama hizkuntza euskara den eta herrian erabilpena ziurtatuta duen eskola baten beharra edo jatorri aniztasun handiagoa duen beste batena.

Argi dago, ikasleek euskara ezagutzeko duten eskubidea ez dela bermatzen Euskal Herrian. 16 urterekin Eskolatik irteten direnean Hizkuntza biak ahoz eta idatziz menperatu beharko lituzkete eta gaur egungo Hezkuntza Sistemak ez du inolaz ere hori ziurtatzen.

"Ikasleek euskara ezagutzeko duten eskubidea ez da bermatzen Euskal Herrian"

Ze alde igarri duzu lehendik hona euskalduntzeari dagokionez?

Aurtengo irailean 29 urte egingo ditut irakaskuntzan lanean. Badira batzuk ezta? Ba, nire ibilbidean, lan eroso batetik (ikastola) izugarritzko erronkei aurre egitera pasa naizela esan dezaket. Orain dela 29 urte ikastolan hasi nintzen, eta orain konturatzen gara zein ederra zen garai haietako mugimendua. Ikastolara etortzen ziren ikasleek, gehiengo handi batek ama hizkuntza euskara zuten eta erdaldunek ere, etxean euskararekiko jarrera baikorra jasotzen zuten, beraz oso motibatatuak zeuden euskara ikasteko eta erabiltzeko.

Gaur egun, jatorri guztietako umeak ditugu; ama hizkuntza euskara dutenak, gaztelera dutenak, eta baita arabiar eta berbera dutenak ere. Pentsa zer nolako aniztasuna!

Etorkinak euskalduntzeko ze neurri hartzen dituzue?

Iazko ikasturte arte, eta pare bat urteetan, Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzan Proiektu bat aurkeztu ondoren Hizkuntza Indartzeko Irakasle bat izan dugu gurekin egun osoz. Kanpotik ikasle bat datorrenean, as-

tean ordu batzutan bere gelatik atera eta irakasle horrekin euskara ikasten jarduten da. Euskara ikasten doan neurrian ordu horiek gutxitzen zaizkie.

Bestalde, Udaleko Euskararen Aholku Batzordetik bultzatuta, eskolatik irteten eta gero, astean 3 orduko saio dinamiko batzuetara joaten dira.

Irakasleen aldetik ahalegin handiak egiten dira, eta emaitzak nahiko onak izan dira orain arte behintzat. Orokorrean, nahiko ezagutza maila polita lortu dute eta batzuen erabilerarekin (eskola esparruan) ere oso pozik gaude.

Eskola euskaldundu kanpaina honen inguruan ze iritzi daukazu?

Uste dut euskalgintzatik ahalegin handi bat egiten ari dela egora larri honi buelta emateko. Benetan merezi duela eta guztiz beharrezkoa dela uste dut. Noizbait konpondu beharko dugu arazo hau ezta?

"Merezi du egoera larri honi buelta emateko ahalegina egitea. Guztiz beharrezkoa dela uste dut."

Musika eta mozorro lehiaketa Aratusteetan

Otsailaren 25, 27 eta 28an ospatuko dira aurtengo aratusteak. Aurten estreinekoz astelehenean ere izango da ospakizunik Plazentzian. Hau da Udaleko Kultura Batzordeak egunotarako prestatu duen egitaraua:

OTSAILAREN 21, zapatua

- Goizeko 11etan kalejira buruhaundi eta trikitalariek
- Goizeko 12etan Zirkoa Plaza Berrian eta argazki erakusketa kiroldegian
- Arratsaldeko 6etan Kalejira Galzagorri txarangarekin
- Arratsaldeko 7:30etatik 9etara eta 10etatik 12:30etara dantzaldia Plaza Zaharrean Naima taldearekin.

OTSAILAK 27, astelehena

- Arratsaldeko 5etatik 8etara jai mundiala ludotekan. 5-6 etara HH3/ 6-7etara 1go maila / 7-8etara 3.,4. eta 5. maila.

OTSAILAK 28, asteartea

- 1etan, liburutegian, aratosteetako ipuinak, 5-9 urte bitarteko haurrentzat
- Arratsaldeko 5etan Plaza Zaharrean mozorro lehiaketa Lehen Hezkuntzako ikasleentzat: Parte-hartzaileek (konpartsa mailan 3 pertsona gutxienez) beraien musika cda eraman beharko dute; epaileek mozorroa eta interpreta-



zioa hartuko dute kontuan eta ize-na Udaletxean eman beharko da astearteko eguerdia baino lehen; sariak 100, 75 eta 50 eurokoak.

- Arratsaldeko 6etan kalejira Galzagorri Txarangarekin
- Arratsaldeko 7:30etatik 8:30etara eta 10etatik 12:30etara dantzaldia Plaza Zaharrean Laiotz taldearekin
- Gaueko 11etan Mozorro lehiaketa helduentzat: DBHko ikasleendako eta helduendako. Konpartsa mailan (gutxienez hiru lagun) edo bakarka ere har daiteke parte

Aratusteetako kontzertuak Gaztetxean

Aratosteetako zapatu eta martitzenerako musika kontzertuagari daude iragarrita Gaztetxean. Zapatuan "Simca" eta "Midnight Travellers" taldeek joko dute gaueko 11etatik aurrera. Kontzertu ostean DJ Hasik gaztetxea girotzen jarraituko du. Martitzenean beste 4 talde hauek joko dute: "Desprezio", "Aguarras sin mas", "Ke os jodan" eta "Klabo Oxidado" k.

Su ta gar Kapillan

SUTAGAR taldeko kideak abade-txeko kapilara etorriko dira datorren ostegunean, martxoak 2, 11:30etatik 13:00etara bitartean, DBH ikasleekin solas egitera. Eibartarrek musikaz eta euskeraz jardungo dute, eta euskararekiko dituzten sentimentuak azalduko dituzte.

Jokin Oregi saritu dute Gijonen

Jokin Oregi Plazentziatarraren "Robin eta Hood" antzerkianak bi sari jaso ditu Gijongo Haurrendako Antzerki FERIA Europarrean (Feten), dramaturgiarik onenari eta espektakulorik onenari dagozkionak. Gorakadaren muntaia hau txontxon-giloen eta aktoreen lana tartekatzen da eta iaz estreinatu zen Durangon.

5 film labur Kapillan

Martxoaren 5ean (19:00etan) Kapillan egingo den emanaldian 5 film eske-niko dira: Asier Altunak eta Telmo Esnalek zuzendutako Txotx (15'), Beatriz de la Vegaren Sarabe (15'), Bego Vicarioren Haragia (13'), Inaz Fernandez Hauspo soina (16') eta Asier Altuna eta Telmo Esnalen 40 ezetz (16').

Javier Alonso Zelaieta
K. Z. 20.000.434
Nora Bastida Etxeberria
K. Z. 20.000.736

HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13

MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren, 10
Telefona 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefona 943 75 13 99
SORALUZE

Roman Garmendia PENTSALARIA


Roman Garmendia plazentziatarrak "Nire tesoroa" bere bigarren saiakera liburua argitaratu berri du, Erroteta argitaletxearen eskutik. Bertan, ikuspuntu filosofiko batetik, Jainkoaren misterioaren gaia jorratzen du Romanek, irakurlea teologiaren atarian utziz.

2001ean argitaratu zuen aurreneko liburua, "Gure jakintzaren mugak", eta orduko hartan ageri ziren "tesoroaren" ideiak bigarren honetan borobildu ditu. Datozen lerroetan, "Nire tesoroa" liburuaren aurkezpena daukazue, Romanek propio Pil-pileango irakurleendako idatzia.

"Nire tesoroa"

Gaixotu nintzenez nireak egin zuen, eta bizirik iraun nuen, eta desesperantza handi batek hartu ninduen mundu honetako gauzendako. Baina nire gaixoa interpretatiboa ere bada, eta filosofia jorratu dut, eta egia bilatu dut, batzuetan deliratzeko ere, baina tarte sanoetan ondorio batzuetara iritsi naiz. Historia sakratua idatzi dutenek bereziki kostata esaten dute gezurra, eta aintzat hartuz haien testimonioak mirarien definizio batera heldu naiz, eta definizio horren analisis logikoa eginez deskubritu dut misterio santu bat, eta Zeruetako Erre-suma, zeina ez baitago mundu honetan. Hara hor nire tesoroa, argumentazioen bitartez lokalizatua, eta argumentazioak egiazkoak dira, baina nola misterioa den deskubritua nik konprenitzen dut fede eskasekoa izatea, baina fededuna, eta nire estudio hauetan oinarritzen dut nire fede katolikoa.

Erretiratuta nago, nireak eginak daude mundu honetan, baina fede horrek, mundu honek hainbatetan higuina ematen badit ere, fede horrek, egia horrek, exijentziak ditu, eta karitatearen birtutean geratu naiz bereziki, ez eskeko bihur-



Roman Garmendia bere azken liburua eskuetan duela.

"Tesoroa ez dago mundu honetan, argi daukat"

tuz, eta bai horren bidez politikara pasatuz (askapen teologiakoa izan beharrik gabe), zientzia politikora, eta ezkerreko politika da interesatzen zaidana, eta bazterretik bada ere, nire erretirotik, halako politika da nik jarraitzen dudana.

Tesoroa ez dago mundu honetan, garbi daukat, baina nire mundualdia, geratzen zaidana, modu horretan bete egiten dut, gurutzea dena, baina intelektuak argi erakusten dit, higuin guztien gaineratik, ezkerreko zientzia politikoa dagoela nire en-gaiamendua, eta praktikan horren

aldeko joera da erakusten dudana, alde bat lagata jada (ni nago ondo demostratua dagoela nire tesoroaren deskubrimendu intelijiblea), beraz alde bat lagata jada nire hegaldi teorikoak fede katolikoa oinarritzen harriaren gainean, hau da, egiazko ondorio erlazioen gainean.

Eta ezinezko ikusten bada ere katoliko izatea eta ezkerrekoa nik engaiamendu biok nire egiten ditut, beste gurutzebidea dena bestalde. Eta katoliko ezkerrekoa naiz, eta argumentatu egiten dut hartu dudana bidea.

Funtsean liburua argumentazioak dira, eta nire filosofia katolikoa da eraikitzen dudana orriotan.



HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



aras S.A.L.

DIN arauak jarraituz eta zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21
50 Posta Kutxatila

Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03
Faxa 943 75 22 95
20590 Soraluze



IX. Saria domekan

Domeka honetan (hilak 26) jokatu-ko da Soraluzeke Kiroel Elkarteak antolatuta Soraluzeke IX. Txirrindulari Saria. Lasterketa goizeko 10etan hasiko da, estazio kalean eta txirrindulariak, 23 urtez azpikoak

denak, 13:15ak aldera iritsiko dira helmugara, 3 orduz eskualdeko herri batetik bestera ibili ostean. I hazko lasterketa, sasoi hauetan jokatze-koa zena, bertan behera geratu zen edurra zela eta.

11 bikote pala txapelketan

22 emakumezko (11 bikote) izan dira aurten emakume arteko pala txapelketan izena eman dutenak. Partiduak martxoko lehenengo asteburuan hasiko dira jokatzen, San Andresko pilotalekuan. "Torturari stop" lemapean jaio zen txapelketa hau, duela hiru urte eta salaketa hori gogoan hartuta emakumezko mordoxka apuntatzen da urtero txapelketan.

3 puntu berri eta 3. Sora

Irantz Borinaga, Ibai Rascon eta Andoni Azkarragaren golei esker 3 puntu eskuratu eta igoera faseko sailkapenean 3. postuan jarri da Soraluzeke taldea. Beti Onak taldearen kontra jokatu zuen Sorak, otsailaren 18an. Zapatuan, hilak 25, edurragatik atzeratu zen Antzuolaren aurkako partidua jokatu da Ezozin, eta irabaziz gero bigarren jarriko da sailkapenean.

EMAITZAK

ESKU PILOTA

ATXOTEGI

Udaberri Txapelketa

Atxotegi - Portu (Elgoibar)	22
Larrarte - Ruiz	4
Atxotegi - Portu (Elgoibar)	22
Aldai - Larrañaga	15

JAUREGI

Eskuko minez jarraitzen du

LASKURAIN

Capellan - Apeztegia	22
Eugi - Laskurain	13
Capellan - Barriola	22
Eugi - Laskurain	13
Berasaluze IX - Laskurain	22
Galarza - Urberuaga	12
Berasaluze IX - Laskurain	22
Apeztegia - Apeztegia	13

FUTBOLA

Beti Ona 0 - Sora 3 (erreg.)
Sora 7 - Amara Berri 3 (jub.)
Sora 2 - Astigarraga 1 (kad.)

AGENDA

PELOTA

Domekan, Donostian
Berasaluze - Laskurain
Chaffee - Galarza

FUTBOLA

Zapatuan 16:30ean, Ezoziko zelaian
Sora - Antzuola (erreg.)

IÑAKI IÑARRA

HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze



MENDATA taberna

Pizzak ● Sukaldetik zure etxera!! ● Kazuelitak
Bokadilloak ● Razioak

ostirala 08:30 - 22:30
larunbata 08:30 - 22:30
lgandea 08:30 - 22:00

Tel.: 943 75 13 87



MABE

ILEA PAINDEGIA



ESTETIKA
SOLARIUM

Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

KM Desing

Disenua eta Sormena

Poligono Amillaga, n° 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Diego Arenas Kupoi saltzailea

Gila zubian aurrera gindoazen eta kupoi saltzailearekin egin dugu topo. Duela 6 hilabete etorri zen Plazentziara, eta ari da poliki-poliki Gila zubiko girora egokitzen. Bezeroek laga diguten bitartean, galdera sorta hau egin diogu.

Jaioterria.

Cordoban jaio nintzen eta bertan bizi 15 urtera arte. Azken 30 urteak Ermuan eman ditut.

Zerk eman zizun atentzioa Euskal herrira etorri zinenean?

Klimak batez ere. Klima epel batetik nentorren eta asko kostatu zitzaidan hemengo hotz eta umeda-deetara ohitzea. Berez hozbera naiz gainera.

Noiztik ari zara kupoiak saltzen?

Duela 3 urte hasi nintzen. Lehengo Ermuan, gero Eibarren eta duela 6 hilabete Plazentziara etorri nintzen.

Hemen piropoak botatzea zakarkeriatzat hartzen da.

Kordoban ordea oso guztora hartzen dira"

Zer iruditu zaizu Soraluzeko herria?

Txikia baina atsegina, jentea jatorra da. Zerbait txarra esan beharko banu garraio zerbitzu gutxi dagoela esango nuke, oso komunikazio txarra dauka.

Ze ezintasun daukazu?

Eskumuturra daukat izorratuta, "colle"-a.

Mozorrotuko al zara aratusteetan?

Ez. Mozorrotu eta kupoiak saltzen bazoaz esango dizute: juan beste battegana adarra jotzera!

Kontatuko diguzu egin dizun amets bat?

Ez ditut ametsak gogoratzen. Zientziak amets egiten dugula esaten duelako, bestela ez dudala ametsik



BERTSO BEGIZ

Kontuan hartzekua da Kordobesarena.

Igertzen da emoteko gertu dagoena.

Umoria da bere saririk onena.

Zoriontasunik gehixen emoten dabena.

ETXEBARRI

Doinua: Haiziak bidali du...

Diego Arenas.

egiten esango nuke. Eta enbidia ematen dit lagunek kontatzen dizkidatenean.

Plazentziatarrek diru asko jokatzen al dute?

Orokorrean lehen baino gutxiago jokatzen da, bai herri txikietan eta bai hirietan.

Zein da jokatzailearen ilusioa?

Saria tokatzea noski. Jenteak normalean esaten du zorrak edo zuloak tapatzeko nahi duela saria.

Piropoak botatzen al dituzu?

Hemen ez. Piropoena hemen ez da oso

ondo hartzen, arrunkeria edo zakarkeriatzat hartzen da; Kordoban, ordea, oso guztora hartzen dira piropoak. Kultura desberdinak dira. Kordobesak, gainera, arte haundia daukate eta asko inprobisatzen dute.

Botako diguzu adibide bat?

"Tienes dos ojos que parecen dos ojales!", "Tienes dos piernas que parecen dos patas de mesa de billar!" edo "Tienes dos ojos que parecen dos aceitunas!"



Lakuesta

Optika



Ikusmen arazoaren frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59

PLACENCIA

KONTSUMO KOOPERATIVA



Esku eskura! Telf.: 943 75 13 45

Argazki zaharra



Ikastolako umeak Mendiolarako bide zaharretik 1971. urtean

Ikastolako neska mutilak Mendiola baserrira joaten ziren arratsalde pasa. Kristina Aranzeta andereñoarekin agertzen diren umeetako batzuk, Ane Bengoa, Elena Madrid, Inma Alberdi eta Alberto Madrid dira.

Iturria: Aitor Madrid.

Lehiaketa

Aurreko aleko erantzuna...

Eibartarrak Plazentziatarrei "Hautxerrikuak" esaten zotsen. "Tza" -rekin amaitutako berba asko "txa" ahoskatzen zittuelako. Esaterako; "Ahutza" = "ahutxa". Plazentziatarrek Eibartarrei berriz, "Xapuerrikuak". Horra!

Iturria: Ramiro Larrañagaren Monografia Historikoa.

HERRIAREN HISTORIA

GALDERA

Zer ziran
"arpasuak"?

- Adinekuak
 - Ibaiko harrixak
 - Armagintzako tresnak
- Aukeratu erantzun zuzena.

Deitu **943 75 13 04** ra
edo e-mail bat bidal ezazu:

pilpilean@euskalnet.net



JATETXEA
TXURRUKA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

SARIA →

Bi pertsonandako
afari mundiala!
Txurruka Jatetxean

SARIA

Fisioterapia sesio bat
Ormazabal Fisioterapia
Zentroan.

IRABAZLEA
Amaia Albisua



IRATXO
GOXOTEGIA

EGUNKARIA
ETXERA ERAMATEN DIZUGU
GEHIAGO ORDAINDU GABE

ETXABURUETA, 4
20590 SORALUZE
tlf: 943 75 13 20

TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behe, telf: 943751789



Ugaraxo

2006ko otsaila



Badatoz Aratosteak!!



Kaixo lagunok!

Urte berria hasi eta gu ere lanean hasi gara jo-ta-ke. Gure gaia birziklatzea da. Gai hau oso interesgarria eta oso garrantzitsua iruditu zaigu. Nahiz eta edukiontzia ongi ezagutu, denok ez dugula zaborra birziklatzen konturatu gara.

Zer den birziklatzea eta edukiontzi bakoitzean zer motatako zabor bota behar dugun ikasi dugu.


Irakurri ditugun testuetatik berri batek atenzioa deitu digu. Gazteiztar bakoitzak 1999.urtean 280 kilo zabor baino gehiago sortu zituela. Eta gure galdera, nora bota horrenbeste hondakin? . Arazo honi irtenbidea emateko garrantzitsua ikusten dugu zaborra birziklatzea. Horrela zuhaitz asko salbatuko dugu, ur, olio eta energia aurreztu eta ibaiak eta airea garbiagoak izango ditugu.



**Egin ezazu gu bezala, birziklatu zaborra,
DENOK IRABAZIKO DUGU!!**

DENBORAPASA

Lagundu
mozketeroari
gaztelura heltzen:



TXIKI - INKESTA

Gustatzen jatzuz aratustiak?
Ze mozorro jantziko dozu aurten?

ANDONI RICO, 11 URTE

Asko gustatzen jataz eskolan jai daukagulako eta kalian lagunekin ondo pasatzen dogulako. Aurten uste dot lehoi jantzitta juango naizela.

**AINHOA GALLASTEGI, 11 URTE**

Bai, aratustietatik dana gustatzen jata. Eskolako 5. eta 6. mailakuak afrikano jantzi bihar gara. Larunbatian moraz jantziko naiz eta asteartian trogloditaz.

**ASIER MARTINEZ-ALCOCER, 11 URTE**

Kamuflajeaz mozorrotuko naiz, terrorista moduan, traje berde eta marroi batekin. Astelehena, asteartea eta asteazkena dakagu jai, denbora asko nahi dozuna egiteko.

**MAITE RUIZ DE LACUESTA, 11 URTE**

Asko gustatzen jataz aratustiak, giro oso ona egoten da. Oindiok ez dot erabaki baina pailazoz edo bakeraz jantziko naiz. Mozorro lehiaketia asko gustatzen jata eta aurten igual parte hartuko dogu.

**DAVID IGLESIAS, 11 URTE**

Aratustiak jai desberdinak dira, jentia disfrazau egiten da eta ondo pasatzen dogu. Ez dakit oindiok ze mozorro jantziko doten: pailazo, sorgin edo bakero.

**ITSASO VALERO, 11 URTE**

Musikiagaittik eta jantzi egiten garalako gustatzen jataz aratustiak. Zapatuan sevillana jantziko naiz eta asteartean bakera. Eskolan afrikanoz mozorrotuko gara, saku marroi batzukin eta gona banakin.

**TXISTEAK****POLIZIA UMEA**

Ikastolatik dator umea eta esaten dio amari:

- Ama, ikastolan polizia deitzen didate.
- Zergatik?
- Hemen galderak nik egiten ditut!

UR GAZIA

Irakasleak ikasleari:

- Esan, Txomin! Zergatik da gazia itsasoko ura?
- Bakailao asko ibiltzen delako.

SUEZIARA

Senarrak esaten dio emazteari:

- Zer nahiago duzu, abrigo bat ala Sueziara bidaia bat egin?
- Bidaia bat Sueziara!
- Zergatik?
- Hango abrigoa hobeak direlako.

SAN MIGEL

Zeruko atea jotzen du norbaitek eta San Pedrok galdetzen du:

- Nor da?
- San Migel.
- Utz itzazu bi kaxa.

JAIOTZA

- Noiz jaio zinen zu?
- Ez naiz gogoratzen, lo nengoela jaio nintzen eta.

BERTSOAK

Ihauteriak badatoz
 Eta ni pozik nago
 Larunbatean hasiaz
 Nola ez naiz egongo

Doinua: ikusi nuenean

Zertaz jantziko zara
 Ihauterietan
 Ni paiaoz jantzita
 Aurten kaleetan

Doinua: Maritxu, nora zoaz



Gauzan irten ta gero
 Mozkortuta etxera
 Etxea alde batera
 Ta gu goazen kalera

Doinua: Olentzero joan zaigu

Bukatu dira iada
 Aurten mozorroak
 Hurrengo urterarte
 Armairuan denak


Doinua: Horra Mari Domingi

Bukatu dira baina
 Sua bihotzean
 Ez da iñoiz bukatu
 Gure barrenean

Doinua: Maritxu, nora zoaz

DENBORAPASA

Zer ikus dezkezu irudi hauetan? (buelta eman irudiari)



Soluzioak:

1. Pitxerra eta mutil bat.
2. Mutil gaztea eta zaharra.
3. Aingerua eta pertsona serio bat ezpain handiekin.



LIMPIEZAS TREJO S.L.

Garbiketa Industrialak

Errekalde, 30 behea

Telf.: 943 75 25 57

Fax: 943 75 25 56

20590 SORALUZE

Garbiketa orokorrak

Garbiketa industrialetan espezializatua

Bulego eta lantegien mantenimendua

Makina garbiketak

Garaje garbiketak

Obra amaierak

Marmol eta terrazozen distiratzea

Graffiti garbiketa

Lurzoru handien errazketa eta fregatuak

GOGORTUZ Fisioterapia Zentrua



Lepoko minak
Erreuma
Erreabilitazioa
Kirol osteko errekupeazioa
Tendinitisak
Zaintiratuak

Orduetgia:
(goizez) 07:45etik 12:30etara
(arratsaldez) 17:00etatik 21:00etara

Oier Oregi Unamuno
Santa Ana 7
Tel. 943750022





ZINEA EUSKARAZ
Film Laburren Zirkuitua
2006



Martxoaren 2tik apirilaren 12ra



TXOTX

ASIER ALTUNA
TELMO ESNAL

SARABE

BEATRIZ DE LA VEGA

HARAGIA

BEGO VICARIO



HAUSPO SOINUA

INAZ FERNANDEZ

40 EZETZ

ASIER ALTUNA
TELMO ESNAL

EMANALDIA SORALUZEN
MARTXOAREN 5EAN 19:00ETAN KAPILLAN